

Egutegi esperimentalala

OMAR NABARRO

 **S** poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1986 Omar Nabarro

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1986

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*«En la Republica de la traición
reina la estupidez»*

Antonio Jimenez Moreno

Sarrera antzeko eskeintza laburrak

Ez naiz monarkizalea; urdina maite dut. Ez, aha-
tik, odoletan. Horra nire lehen poema, neure aita, ia-
da hila, erdaldunari eskeinia.

Kristau egutegiko 1985. urtea hasi berria zela,
Cristina, Irati, Urko eta laurok Soilubeko maldetan
ibili ginen, elurtzan sartzen dute hankak. Hegazti zo-
ragarriak ikusi genituen, hegaberak. Heuren konpai-
nian nenbilela bururatu zitzaidan sonetoa, «Soilube
urtarrilean». heurei eskeintzen diet.

Gaztetan, herriko gazteak Santa Ageda kantetan
irteten ziren —neu ere inoiz— anai nagusia, Anton,
tartekoa izaten zelarik. Berari eskeintzen diot Santa
Ageda poema edo kopla sorta.

1984.ko urrian atxilotu egin ninduten. Zazpi egu-
netan zehar jasan eragin zizkidatenak, basakeriak, ez
dira hemen kontatzekoak. Errugabeak atxilotu zituz-
ten horrela ateratako adierazpenak zirela eta. Heu-
rei, Amuri eta bikoitzei, «Joxe Arregi» poema. Joxe
Arregiri eskeinitako poemak neure larruan frogatuta-
ko kalanbrekadak dira. Agian, bera izan zuten gelan

izan ninduten. Ez zara sekula ere nire gogotik alden-
duko.

Somorrostro aldean klaseak ematen nenbilerarik,
martxoak hiruak harrapatu ninduen, saminez, tristu-
raz, oroitzapenez beteta. Ene alaba maiteari poema
luzea idatzi nion, tabernan jezarrita, hiru ordutan,
idazkera automatikoz.

Apirilean suertatu ohi da askotan Aste Santua.
Zelan gogoratu bibliaren esana, geure inguruan begi-
ratzean amorratu egin barik? Ez naiz fededuna. Bil-
boko «Gran Vía» delakoan gora eta behera ibiltzen
naizelarik ia egunero, eskaleak ikusten ditut nonahi.
Manifestaldiak, eguneroko kontua. Banketxe ondo
apainduak, gaztandegiak, bitxidendak. Aberatsak
hain aberats eta pobreok, ostera, hain pobre! Eta be-
ti txakurrak; nonahi, noiznahi. Izan ote da egun baino
zuzengabekeria handiagorik? Nori eskeini behar diz-
kiot apirileko poemok? Mundakako eskumatarrei,
inoiz irakurtzen badituzte. «Amaraun senglean» Fo-
ruko Joserrari eskeintzen diot.

Maiatza, topiko garaia. «Ispilu anonimoak» nire
anaia Alejori eskeintzen diot, hamalau urte zituela ha-
si bait zen lanean, etxegintzan, eta egun heuren nahi
dutenetan baino ez du lanik. Hara eman dioten pagu

txarra! Eta gainera herriko eskumak, halakoxeak dira, alfer fama ezarri dio. Maiatzeko sonetoa Madariri eskeintzen diot, berarentzat idatzi bait nuen.

Ekaina, ekiaren hilea. Nork ote du errimak paratzeko astirik garai honetan? Poesia neurtugabea (azalean neurtugabea) prosa hutsa baino besterik ez dena uste dutenei idatzi nien, prezeski, soneto hori.

Uztaileko sonetoa Ibar Ezkerreko lagunei eskeintzen diet, batez ere Fernandori, bertako trenetan, Ion Mirande gogoan nuelarik, idatzita dago eta.

Abuztuan, urtero legez, udako barne ikastaroetara joatea egokitu zitzaidan eta Lakuntzan eman nituen hamabost egun. Ia gauero idazten nuen zeozertxo. Bertan dira aspaldi Bilbo aldean ezagutu nituen neskak, neba gartzelan oraindik. Heurei eta neurekin egondako ikasleei, Yolandari batez ere.

Irailean Otxandion izan nintzen, EGA titulorako ikastaroa aurrera ateratzeko ahaleginean. Oso kezkatuta ibili nintzen, eta nabil, euskararen galtze prozesua dela eta. Hizkuntza hau hil egingo zaigu, Komunitate Autonomoko agintariek bestelako eritzi interesatua agertarazten badute ere, guk geuk sustraitik egoera hau aldatzearren ganorazko beste ezer egin

ezik. Euskara eten politikoaren bidez salbatuko duguna uste izanda, berorren alde zabilzatenoi.

Zelan ahaztu, bestalde, Otxandiok gure historian zehar bete duen papera. Ezinezkoa zait. Zirrara estrainoak jota eman nituen egunak bertan. Herkide torturatuen karraxien oihartzunak, haizearen orpoetan, gauero gelaraino, laster etorriko ziren neureen aintzindari. X. Ondaindia, Mikelon eta I. Gaminderi dedikatu gura diet «Hitz zakarrak» poema. Ardoa, droga zentzu zabalean, dugu azken kontsolabidea. Godeleta behin eta berriro betetzea eta hustea, aurrera egin ahal izan dezagun. Neurekin, denok elkarrekin, mozkortu zaretenoi, «emaidazu edatera godeleta».

Musikaren eraginpean idatzitako poema automatikoak dira musikari buruzkoak. Idatzitako edozertan datza mezu ideologikoa. Poemotan baita. Askok, ostera, ukatu egiten du egia hain sinplea. Poema «zuzenki» politikoa denean «politikotzat» jo eta estigmatizatu egiten dute. «Zuzenki» politikoa ez denean, orduantxe ei da «ez politikoa» eta, beraz, artistikoago edo literarioagoa. Ez ote dute ez azpikontzientziarik ezta ideologiarik ere sariketetako epaimahaietan edo argialetxeetan edo egunkarietan edo nonahi literatu-

ra apolitikoa eskatzen dutenek? Kakazaharra! Poema onak eta txarrak daude, baina denak dira politikoak heuren testuinguru historikoan. Ezin dugu eskumaren aparailu ideologikoaz baliatuz aztertu lan literarioa, geure burua ezkertiarizat dugunok, behintzat.

Azaroak 20an Santi Brouard hil ziguten, urte batzu lehenago Argala hil ziguten egun berean. Faxismoa geure inguruan dugu. Ez dut Europan egoteak basakeriatik libre egiten gaituenik uste. Herri honek ezin bururik altxa eta denok dakigu zeintzu pizti diren horren errudun eta eragileak. Nahiz eta guk kristoren ahaleginak egin «zibilizatuak» izaten, heuren ez gaituzte sekula ere hain errez baketan utziko, historiak eta egunerokoak aski ondo frogatzen digutenez. Azaroko sonetoa Santi lagunari idatzi nion.

«Herio eta loa» poema neure amumari eskeintzen diot, egunak igaro ahala haundiagotu egiten bait zait bere izate paganoaren itzala. Bera eta ama izan ditut euskal senaren iturri eta ispilu. Bizitzari buruz, sakonki sustraituriko filosofia biren jabe zirelakoan nago. Liburu honetako poemarik luzeenean amaren filosofia laburtzen saiatu naiz, konszientea naizelarik beste askorena ere badena.

Ez nintzatekeen naizena izan ez banintz Mundakan jaio. «Hilburukoa» neure anaia gazteenari eskeintzen diot, bera eta Mundakako portua bat dira eta. Neure arrebari ere poema hori berbera. Aintzina izan ziren mundakar idazle euskaldunak itsasoratutako ubide berberean doan ur berriak baino besterik ez gara gaurko mundakarrok, Ion Kortazar, Rosa Mari, Martin Arrizubieta. Zuek, Azkue, Etxeita, Otxolua, Arrizubieta, zuok irakatsi zenidaten ubidea. Denok zaudete ene «hilburukoan».

Azkenik, argitaratze bidea ezezik bestelako literatura lanetan ere lagundu nautenei, batez ere «Susa»ko lagunei eta bereziki nire lehen poemak irakurri zituenari, Joserrari.

Omar Nabarro

Egun horretan,
hala zeruan
nola
odoletan ere
desagertu eginen da
urdina.

Urtarrila
Gabonzaharra joanda
urtea badabila
urtea badabila
Gabonzaharra joanda
Urtarrila

Sollube urtarrilean

Itzuli egin dira hegaberak,
urtero legez haizearen erromes;
iparreko izotz krudeletatik ihes,
hegaletan, dantzan neguko banderak.

Berton behiola izaniko trintxerak
estaliak pinu eta otabarrez;
garai batetako hainbeste amets
ez ote sukarraldiko kimerak?

Inoizko urdinen Kantauri itsasoa;
urtzeke, zuri Soiluben elurrek;
sasitzan gordeta dabil soso.

Galdera larri horren erantzuna
ez dute inon be datzaten hezurrek:
geure eskutan dugu etorkizuna.

Otsaila
otsoen askazia
zementopean hila?
zementopean hila?
otsoen askazia
Otsaila.

Santa Ageda

Santa Ageda eguna dugu
besteak bezain tristea;
barruko kezka arintzearren
hautatu dut abestea.

Herriak jasan behar duelarik
bere soinean zauria
bera baino ez dugu berton
benetako martiria.

Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da Deun Agate;
etxe honetan borroka dugu
askatasuneko ate.

Zergatik ez da erditzen berton
Santuen amets zeruaz,
gauzatua bait dugu ifernua
polbora eta altzairuaz.

Aintzaldu daigun Agate Deuna
bihar da ba Deun Agate
Cesar, Tribuno eta abarrei uko,
geurean geu jaun eta alkate.

Joxe Arregi

(lau urte)

—I—

Sagatsen begi ireki berri
iletsuak
errekastoen ibarretan
goiza laztantzen
Belakilika orlegietan musu
hori mina
argiaren irriparra
Aitzen kaobazko adats biluziak
—enbor beltzak
 artezak—
eta urresti malkotsuak
 negar batetan

—II—

Errepidean
katu gorpua motu
 ahoa odoletan
Hiriko teilatudi ganen ere

gorri argiaren ezpain
goiztiarra
emeki irekitzen
egun sentiaren hatsa

—III—

Su gabeko ketan oro
etxe zuloa
itsasadarra
grua argoien oinak
dena
ketan

—IV—

Ke gabeko sutan
geu
Joxe
geu
ke bariko sutan

—V—

Hara han
torturazuloa
Berari darion isiltasun ofizialean

torturatuon
karraxi basatiak
zamalkatzen dira

Nora?

altzairua urtzera
altzairua urtzera

Joxe

—VI—

Altzairu urtua
itsaso bat
Joxe
itsaso bat
Altzairu urtua

—VII—

Elektrodoak
Pikana
Bainontzia
Kirofanoa

izuen geografia berria
pausoz pauso ibilia
askatasuna inguratzen duen eremuan
bizi zareten hezurrezko eta haragizko

mamu teknifikatuok
ikasiak ditugu zuen izena
gau amaitezinetan zehar

Martxo
desagertuz mendian
elurra'ta otsoa
elurra'ta otsoa
desagertuz mendian
Martxo

Martxoak hiru

alabari

gutun

esperimentalala

Nork uka lezake San Frantzisko piztiekin ere
mintzo zenik

piztiak ostera

balaz mintzo ziren

piztu eraziz

lutozko argitxoak.

Bermeoko portua hartzen

dut

testigutzat!

Zure ama maite izan

nuela

esperma isuri baino

lehen

bitartean

eta

gero.

Neure jaioterrira

Mundakara hain zuzen

Tubal

Noeren ez dakit zer izena

heldu ei zen

eta hain ederreksi zion BETROKOLO / KATILOTXU /
SUSPITXU / AGARRETXO /...

inguru bizigu hari

zein mirespenes eta txalupaz (itsasoz bait zetorren)

lehorreratu egin bait zen.

Beraren semenekoak ei gara

Semen (semeok eta alabok)

zuri garbi jator kutsababe

haren kumeak.

Agian anonimoa zara
esan ezazu NEUK
eta aukera ezazu
beste guztia.

dut	Zeuretzat idazten
	ene alaba laztana hil naizateke baina papera
geratu dateke	eta irakurri dukezu gauza/idazki hau nahikoa arkaikoa
berau	Zer ez (eta) baina arkaikoa gure artean herri hain arkaiko
honetan?	Azalpen bat behar duelakoan
edo	

gutun (bat) hau
idazten dizut
ene kuttuna
zure
aintzinespermaren berri
izan dezazun.

Ez dut nik gerrarik gurtzen. Baina ez da lili kolorez
gure odola tindatu

geure odolaz tindatu

dira lili zuriak.

Bibliak dioenez
gizon bat izan omen zen
gisa den mokukoa ONA.
Hobena edo pekatua
nagusitu omen zen munduan.
Bada, jainko batek,
kastigua edo zigorra
ezartzea pentsatu zuen.

Halako eurite ikaragarria bidali zien...

gero jakingo dugunez
emakumerik ere bazen.
Pekatutzat har/emeen
artekoari zeritzen
jainko ergel horrek

...baina...

...ixo!

Lehenengo eta behin

Noeri kondatu zion jainko horrek

NOE aipatu dut

konturatu?

egitea pentsatu zuena

salbatua izan zedin

salbatuak izan zitezen

bera eta senideartekoak.

Salbatu diot nire

lehengusu abertzale bat

Gaizka den arren, izenez

Salbador ez delako

euskara

garbia edo...

Arka egin zezala

lurrazalean den bizidun orotatik

bikote bana Har zezala
bere zorioneko Arkan

Bikote kontua garbi ez
dagoen arren (badakizu
lore hemafroditen kontua
eta abar...).

Gero euriteak
berrogei egunetan iraun omen zuen.
Banoa harira!
Arkaikoa diodanean
ez dut arkakoa esan nahi.

Egun batetan ez
hala biz
hala da baizik
esan dezagun.
Arestian esan
dudana Arestiri plagiatua.

Bala larri fusilak
Fusilak disparatzen txakurrak

txakurren atzean agintariak
agintariak jezarrita bulegoetan
bulegoak ttukuntzen andrak
andron semeak hilik
hilik dautzate langileak
langileek moldatzen altzairua
altzairuzkoak dira fusilak
fusilak ez dira okerrak
okerra agian asturua

	ala geugan ote dago
okerra	
	etsaia dugu
ankerra	
	eta ez dakigu irabazten
gerra	
	garitzan hiltzen duten
eperra	
	ez da
alperra	
	baina ez daki egiten
gerra	
	kendu ezpateei
uherra	

abia ezazu
motoxerra
etsai erori arte
gerra.

Andre horren asturua ez zegoen inon idatzita.
idatzita dago
odolez gertatutakoa
idatzita dago
baita:

Garai horretan soldaduskan nengoen Mandoak
laxistak
Permisoa eman zidaten Hilebeterako Herriratu
egin
nintzen Hilketek etxean harrapatu ninduten

Martxoak lauean edo bostean —ez naiz ondo
gogoratzen— Joseba Coriaren aiton-amonen etxe
zaharrean
batu ginen Pankarta bat egin edo osotu genuen
Pajaru eta tartekoak ziren Gernikako planoak

marraztu genuen Kargatu egingo zutelakoan
geunden

Madari ere geurekin zen Eta osaba Alejo Ai ene!
Gure protesta azaldu genuen kale sakratu haietan
Kargatu egin zutenentz? Baiezkotan nago Batek
daki Hainbestetan kargatu dute! Soldaduska
diostazu

Neure larrua jokoan zebilela artean? Jakina
jaio aurretik maite zintudan Jaioterria maite nuen
Ezertan pentsatu ere egin barik egin genuen eta
kitto

Izen anonimoz josirik daude hilerrietako gurutze
harr

iak Pankartan HERRIAK EZ DU BARKATUKO edo
idatzi
genuela uste dut Zeu zara orain herria.

Joko arauak:

heurek guri NON

NOREN

TARREN

ZER

erazten/eragiten diguten.

Adibidez:

Muskiz

Lemoiz

Fruiz

Gaminiz

Laukiz

Gautegiz

Urduliz

Dabid

Estepan

Pepe

Gotzon

Neu

Gladys

Zeu

Anonimoa

Alvarez

Urkiaga

Jimenez

Barros

Estal

isuriz

iz

iz

iz

iz

iz

iz

Kristauek sagradutzat duten idatz bilduman
idatzita datzana ez
aldatzeko
idazlea heuren jainkoa
bait da.

txi

txio

txori

txiktxo

ka

karran

karranka

antxeta

hantxe

txirletak

han

karran
kan
kan kan
kanpaia
kan klan
 klank
klink
 klonk
kilikolo
kilikili
kikolo
kokolo
 hori!

Dabid Alvarez
Gaminizkoa
Lemoizen odola isuria
Basurton egin zuen bereak.

Historia aldatzeko ez naiz nor
gera dakidala mihingaina lehor
ez badut egia defenditzen gotor:

Escribiste una hermosa
palabra

Vallejiana, anterior

 LIBERTAD en una ciudad
que es...

 VITORIA para ti y queria,
ejem!

aprovechar

este

pequeño

momento

que

se

me

ofrece

para

bueno

decir

que...

.....ukatu egingo nukeela odol hori ez banu egia
osorik esanen...

Albañil trebeek errimek gizasemeek espaloitutako
kalean

gizaodolaz idatzitakoa
aldatu dukeenak
giza ez eme kume izenik
ez du merezi.

Argala

zen

eta

odola

emon

zuen

gorri

gorria

odol

guztiak

diren

bezain

gorria

Guk

egunen

batetan

ogia

az

jan

dezagun

baina

geure

esku

eta

eskutan

dugun

liber

tate

az.

Ze Tubal eta ze Atabal!
egiari atea zabal
Zuhaitzak zenbat ozpal
Txoriak zenbat hegal
Ze Tubal eta ze Atabal!
bizi gara nahiko makal
txarto janda argal
gauden libre eta apal
Ze Tubal eta ze Atabal!

**Apirila
zelai orlegietan
eguzki borobila
eguzki borobila
zelai orlegietan
Apirila.**

Amaraun senglean

Amaraun senglean
goizeko leiak
zilarrezko kaleidoskopia
eraiki du,
ekiaren jostailurik perfektoena.
Haruntzago
autoreren batek
hildako sator gorpua
datza.
inoizko itsuen

Jesukristoren azken hatsarekin
Salomonen Tenplokua beroa
goitik behera
urratu omen zen.

Sarriago

urratu ohi ditu gure bihotzak
zuzengabekeriaren ganibet zorrotzak.

Garbizale eta apaizentzat be
liburu bana idatziko dut;
garbizaleentzako
lizunkeriaz beteta,
irakurri ahala
kanpaia jo ahal izan dezaten;
apaizentzako, oster,
garbizalekeriaz beteta,
kanpaia jo ahala
kanpaiak jo ahal izan ditzaten.

Ateoa eta fededuna
biak mozkorti
biak hil
Fededuna
ifernura joan ei zen
deabruaren mozkorrak
harrapatzen zituen eta
Ateoa ostera
Zerura joan ei zen
Kristorenak
besterik ez zuela
harrapatzen eta.

Maiatza
berriro dakusagu
bizitzaren garaitza
bizitzaren garaitza
berriro dakusagu
Maiatza.

Ispilu anonimoak
sekretu arrunten
hondorik gabeko amildegia
emakume arropak frogatzen dituen
adoleszentearenak
negar dagien apaiz etsitu agnostikoarenak
tabernetako komunetan pikatzen den
heroinomanoarenak

Ispilu horituak
tristura egozleak
heriotzaren testigu mutuak
gartzetakoak, kuartetakoak, eskoletakoak,
atzean utziko presondegi guztietakoak
gatibutzakoak, animaltasunaren zigortzaileak.

Ispilu indargeak
hemengo gizakion
bizitzaren bisaia ahituak
bizartegietakoak, geltokietakoak, takiletakoak
egunerokotasunean kateiatzen gaituztenak
beharren beharraren oroi erazleak.

Ispilu proletarioak
mundu guztikoak
bakardadeak elkartzen zaituztenak
baso komunikanteen legearen menpean bezala
batetan min tantarik minimoena erortzean
beste guztietan hedatuz agertzen zaizuenak.

Herri guztietakoek
begirada bera
bidazti guztientzat.
Bidazti guztiek
Begirada bera
herri guztietarako.

Zelan konturatu
herri bakoitzeko
nabardura meheetaz
hain iraganaldi laburrean.

Jarrera berdinak beti:
gurarik bako begiradak
ihardunarteko unetan;
jakingura nekatuak,
egunerakoan itoak.
Bidaztia bidean,
bidearen beraren
osagai bereiztezina,
ohizkoa.

Nola ohartu
egun guztietako
bidazti ezberdinetaz
hain iraganaldi laburrean.
Jarrera berberak beti:
pausaldirik gabeko soak
bidarteko etxeguetan;
ikusgura ahituak,
betikotasunean urkatuak.
Ikustea leihoan,
leihoaren beraren
osagai bereiztezina,
ohizkoa.

Umeak
—beste inor ez—
liluratzen dira
bidaztiekin zein herriarekin
bidean doazela
edo

herrian direla
amestuz, aintzat
herrian ala bidean
bizi diren.

Lotarako janzten du ekiak itsasoa
Arratsean ostenduz altzairuzko loguraz.
Izarora aldentzen da kaioa tristuraz
Urdinean zehar irristatuz bere soa.

Hari begira, lehen izanik barru goxoa
Kixkalita dut orain bapateko suminduraz;
Kutsatuta dauka askatasun min eta guraz
Hegazti hauskarak betirako nire izate osoa.

Heriotza ukatuz, herri zurrunbiloa;
Herkide eroriek utzitako ziloa;
Bihotza estuagotzen didan zorabioa.

Haizean izkribatu duzu hegalen xarmaz
Sorterria defendatu behar dela armaz
Inoiz izango bagara askeak, kaioa.

Zeruan isurtzen dute goizero gernua
sekula ere iruditu gabeko piztiek,
muga harunzko monstru erraldoi basatiek
berpiztu egiten digute berton ifernua.

Errobot mekanikoen lantuzko doinua
jotzen dutela elektrotresna eriek
semaforo zuri, gorri, eta orlegiek
ezerezari egiten diote keinua

eta auto ihestutuei darien kedarra
ez ote Heriok bidaitzen digun zezenak
barne muinetan iltzaturiko adarra?

Tristura hauts ilunez estalita iraganak
neronen bizialdi artegatsu bakarra
irribarretsu itxaroten nauka azkenak.

Ekaina
gure herriko indarra
eguzkiarena aina
eguzkiarena aina
gure herriko indarra
Ekaina.

Hareatzan etzanda poemak
brontzez tindatzen eguzki galdatan
erabat mozkortuta Vermouthetan
erdi biluzirik aintzinako lexemak:

larru gorritan gaurko semantemak
zakila barruratu nahiz, txantetan?
subjuntibo lotsati aluetan;
barreka morboz begira morfemak.

Etxean buruhausten poetak,
ernaldu ezinik beraien errimak,
akademiak esan ariketak

betetzeko erdiminez arimak.
Sufritzen ari dira gure estetak
gaurko ganora ezaren biktimak.

Uztaila
bira erdia eginda
urtearen gurpila
urtearen gurpila
bira erdia eginda
Uztaila.

Inorako ez dagoen trenan hartu duzu,
karril herdoilduetan bertan behera datzana
bera ere herdoildua, itzalen amarauna,
non zeure baita ispilatuta bait dakusazu.

Ez dena Heriorik, jada ondo dakizu;
gezurrezkoa dena kanpotik datorrena.
Deuseztuz doaz soina, oroimena, garuna.
Hartugabeko bidean nork esanen, aizu!

Kristal hautsiak, itoginak, konturatzeke
nonahi eta trenan azken negutera doake.
ezertarako ez den burdinezko nahaspila.

Zeu, nora zoazke botatakoan azken hatsa
usteldura, gorpukina, zornea, kiratsa,
itxuraldatuta ala, agian, betirako hila.

**Abuztua
eguzki masaila da
gorri eta puztua
gorri eta puztua
eguzki masaila da
Abuztua.**

Lakuntza abuztuan

—I—

Ez da itsasorik hemen:
klorofila errakor batek
ezertzen dizkie ezkata ernagarriak
eltxoen ibilera zentzugabeei;
gartzeletan usteltzen dira
etxeko hormetan urdinduta
datzaten argazkietako haurrideak.
Garitzan igerika enarak
arrain desbideratuak bailiran,
geltokiko andena kai.
Tristuraz naiz bainatzen
arratsalde sargoritsuenetan ere
—hemen itsasorik ez dela jakin arren—
eulien maniobra zoroetan
norbaiten ausentzia ozeanokorra
somatzen dudan hauetan,

Mikel

—II—

ametsa

urdin larraina

Beilegi itsasoa

Igeri soso

Hegaz arruina

—III—

fruituak

Onduta abailtzen dira fruituak lurrera,
bertan ustelduz haziak askatuta
muskila husteko, alua erdiminez zabaltzen
duen emakumeak bezala.

Halakoxea dugu bizitzaren kontraesan dialektikoa:
sator itsuena gaua
gau bihurtu behar dutelarik eguna bera ere
lurpean bizigu itzaltsuak zulatuz.

—IV—

euliak

Irailean hilko dira euliak
hutsik utziz gelak.

Hazkura estrainoren bat nabarituko ote
gure soineko bazter ezkutuenan

non heuren hankak
pausatu ohi bait ziren
udako arratsalde sargoritsuetan.

—V—

Hara gaua
ixila
harako mendian
lainoa eratzen.
Hara pagua
ia hila
harako basoan
horbela laztantzen.

—VI—

Astiro, badoa
gaueko fadoa.
Laster da geroa
iragan eroa.

Ilun hariztia;
garratza ezta.
Tristuraz bustia
gizonon astia.

Han katumizarra;
dirdir artizarra.
Goizeko sukarra,
esnatze zakarra.

Zuhur amarauna;
more okarana.
Banoa laztana,
orain, zeuregana.

Erreka doa artez,
lainoa negarrez.
Hurrera zaitez
ni zeureaz betez.

Lied(er)

Zeru izarreztatsua:
hilbetea bertan dager.
Pagopean amoroski etzanda
bi gorputz biluzirik: gazte, lerden. eder.
Sabai ertzean dirdir
nabarien artizarra.
Laztan zirikatzaileen saztadaz
zainetan zoroki zamalkatzen sukarra.
Errekari darlo
lurruntsu behe lainoa.
Adimena elkarrengan deuseztuta
biok batera dardarazten, pasioa.
Goiz ihintzaz estalita
dakus belarra ekiak:
oilaritearekin harto ditu loak
orgasmo izerditan bustita bekokiak

(Schubert eta Lauaxetaren oroiz)

Iraila
itsasadar ertzean
ihidia, oreila,
ihidia, oreila,
itsasadar ertzean
Iraila

Otxandio irailean

—I—

Otxandioko kale elektrarietan ere
enara betidaniko enarak;
gu, ostera,
kanpotikoek geurea janda,
inoren hizkuntzaz mintzo garela,
zer ote?

Lemabako batela,
haizete nahiz uhin mizkandoen menpeko?
Sekula santan ere
berrorlegituko ez den
zuhaitz abailduaren
azken horbel ustelkorrak?
Atxuloan behera
jausitako ardi gorpuan galduriko artila,
erroiek heurek ere arbuiatua
edo, bestela,
suizidak,
geltokiko azken segundoetan
—bere burua
trenbidera bota orduko—
zapaitzen duen zigarrokina?

—II—

Ebatu diezaiogun anai arreбок
aintzinako ezpata astunari
eta
inoiz
gure mintzaira hil egiten bada,
blai ezazue bildur barik
neure odolaz,
nahiago bait dut
betirako mutu
aldi batetarako
zorigaiztoko belarrimotz
baino.

—III—

Hitz lehorrak dakartza haizeak;
ez ote dira
anaien kexu karraixi erdiragarrien
oihartzun mehenak?
Zuhaitzetako adar eta hostoetan
egonezina da nabari;
zer ote dator
udazkenaren orpoetan, haginkadaka;

lorratz ulerkaitzak
ageri dira errekaetoetako uretan
—orain arte hain gardentsu,
gaur hain kirastuak—;
izurri ezezagun honek
akabatzen dituen abereen erraietan
igarkizun antzemanezinen bat
ote dager, ezkutuki?
Kaleetan noala
herkide artegatsuen begietan
bilatu nahi dut erantzuna;
igarri ezazue, bada, neuregan
eta erantzun;
haizeak dakartzan hitz lehorrok
ez ote gaituzte
elkartzera deitzen?
Zuen begietan bilatzen dut erantzuna.
Zeuon begiotan bilatzen dut erantzuna.

Gaur, irailak 27,
txori gorria,
lumaia odolez blai,
pausatu zait
gogoaren ahurretan;
«neure hegalez
estali ditut
haizearen zauriak»

Emaidazu edatera godeleta
gainezka urteko lehenengo ardoaz
ardurarik izan barik geroaz
—astiro sartzen zaigun ganibeta—

Askatua dugu ia espoleta,
gure egunak urrunera ez doaz;
egun hain tristeotako ezkoaz
ezin eragotziko leherketa.

Berau erabateko minbizia,
etengabe hazten den asfisia,
gorputza jan behar digun legena.

Baina ez da beteko, ez, epea
eman barik mendekuzko kolpea
agian lehena edo, agian, azkena.

Urria
behelainoa hain ugari
eguzki hain urria
eguzki hain urria
behelainoa hain ugari
Urria.

Derio urrian; hogeitasei lerro eta lar

Urria, oparoa;
aro emankorra.

Hilerritik hurre, erepide berrian,
goizero

lainopear

—beidura hautsiak begiak,
erraiak leherturik—

txakur hilen baten gorpua;
satorrak ere

hilik.

Urre zaharra madari berantiarrak
arboletan onduta

eta baserrietxe zaharretako etarteak
mahats mordoz gainezka,
lurrera erortzear.

Gasoleo errearen kedarra
egun urratuan hedatzen.

Derio! Derio!

Bizpahiru metro sakon
hondorik gabeko azken erorgua;

bertako ertzean
jezarrita,
Herio,
goizero,
hain aro oparoa dugun
Urri emankorreatan.

Gaur, urriak hogeitamaika,
hamaika bider madarikatutako azaroak bataren
bezpera,
bezpera guztietako tristuraz
tristura egun ofizialetako poza gomutatzean
gomutatu egiten ditud, halaber, hilak;
hilok gogoan bihar, etzi, etzidamu,
damu izango duzuelako zeuon bizitza;
bizitza honetan, bakarrean, difuntuagoak
difuntuak heurak baino zaretelako gaur;
gaur, Urriak hogeitamaika,
hamaika bider madarikatutako azaroak balaren
bezpera.

Strauss entzuten

Halaxe mintzo zen Zaratrusta

Badakit —ondo jakin gainera—
ez dudana sekula be
eternitate apurñorik be
eskuratu ahal izango.
Jakin badakit
eternitate hitza bera be
ez dena besterik kimera baino,
gure diskurtsoa
hutsala eta alferrikakoa dena.

Ur tanta,
beste miriadaka tantarekin
itsasorako bidean
erroa zabaltzen duen ibaia.

Itsasoa;
lurrun
eguzki galdatan.

Haurtzaroa?

Itsasora begira nengoelarik,
askatasuna amets
kaioen hegaladetan zentzuna galduta,
orain preso naukan
gotorleku honen lehen harritzar
erraldoiak ezartzen ari
ziren garai hura.

Gaztaroa?

Hormatzarron aurka ari nintzela,
ene baitan
beste milaka gotorleku;
gotorlekuotan, gartzelak;
gartzelotan preso
neu;

behin eta berriro, neu
preso.

Haurtzaroan

neure inguruan eraiki zuten

gotorleku erraldoiko hormatzarren aurka nenbilela

nire barruan

beste milaka gotorlekutako

hainbat gartzeletan

preso nindutena

ohartu nintzen

garaia,

Gaztaroa.

Ludwig Van Beethoven
entzuten
bederatzigarrena

lehen mogimendua

hondoraketa orduko une larrian
belarriak gorturik
neure eskuak luzatzen dizkizuet
azkenengoz
laberinto zoro honetan
esperantza apurren bat
izan dezazuen

bigarren mogimendua

baso erdian
ekia nola urtzen zen
ikusi nuen
Berunezko ibai ilunek

ludiazala estalita
kristalezko hegazti gardenak
abiatsu ziren
ortzian barna;
hegoetan zerizkien eskatez
osoturiko euria
ari zuen
ilargiaren ipur masaila biluzia
—artizarraren atoian—
izerdi tanta distirakorrez
inguratu arte

hirugarren mugimendua

—I—

Zuhaitz lerdanak,
ibai gardenak;
norenak ote zeuok?
denborarenak.

—II—

Bazoaz arin;
horrexek dit min.

Geureak ere ziur
laster behar egin.

—III—

Itsaso zimel;
eguzki epel.
Giza bakardadetik
hutsari: hel! hel!

laugarren mogimendua

—I—

Isildurik ahotsak.
Odolik ez bihotzak.
Lortua ote du garaipena,
azkenik, heriotzak?

—II—

Loreak du arantza,
haizeak be zalantza.
Etsipen karraixiz mintzatzen da
berriro esperantza.

Isurtzen den odolak
erutzen ditu uxolak.
Fruitu berririk emanen ote
aintzinako arbolak?

azkena

Enaraitsuak be urtero
gure zoko bazterretan;
gu, oster, kateotan,
askatzeko, zer espero'?

Hirugarrena

Martxa funebrea

Ezin argiago dago gogoan
zu izan zinen gizon ospetsuak
odolez estalarazi zituela
Europa eta Afrikako
zoko bazterrak.
Denbora luzea iragan behar izango
hainbat bihotzetatik
—zeure hegalen itzala omen—
lutoa ezabatu orduko.
Ez dugu doluminik
—zeureganakorik ez behintzat—
zeure ezpataren aginpean
hildakoen oritzapenek kutsatuta,
borborka pozkarioa baina.
Zinez dut eskatzen
isuririk gabe gera dakizkiguna
betirako zakilak
eta bularretan

jariorik gabe neskatilak,
zerorrek egindakoak eta bost
burutu behar dituztenak
etorriko bait dira, laster
bapatean —egun argitan—
sost!

azken gogoeta

Elektrarietan txorinoa.
Aurpegian, haizeak fereka.
Gorriz tindatzea erreka
Gure odolaren destinoa.

Gerratetako heroiak

Hara!
hiriko sagutzar ilegorriak
gerratetako heroien laudorioz
idatzitako liburuak
irensten

Begira!

neguko hotz hezeak
gerratetako heroien ohorez
eraikitako estatuak
ugertzen.

Ikus!

heuretan hazitako harrak
gerratetako heroien ezpataz
hildakoen gorpuak
jaten.

Azaroa
zilarrezkoa duzu
iratzetan garoa
iratzetan garoa
zilarrezkoa duzu
Azaroa.

Herio eta Loa

Herio eta Loa

— Loa zaldi;

Herio zamaldun—

etorri dira

— Loa, laztana;

Herio, labaina—

eta eroan,

amets zelaietan landa,

ez Heriorik ez labainik

ez Lorik ez laztanik

ez den

landa zelaietara

non heu bait haiz

bai zaldi

bai zamaldun

bai zelai.

Hilerrian ez da inoren kexarik entzuten
bisitan joandako bizidunonak ezik,
ez da eroaten hara ezeinlako sosik,
ez bait da ezer ere dirutan saierosten.

Gu, ostera, berton, egunak elkarri josten
jakin barik zelan gauden, benetan bizirik,
ala arnasa aldika birikaratu arren, hilik,
mirakuluz gorpumortuan zutik irauten.

Alferrik gogoratzen gara umetako amaz,
arindu guraz barruan daroagun zamaz,
portu baten irrikaz, gau ilunaren baitan.

Eta gainean ezarritakoan harlausa
ba ote garen landareak hazteko gauza
neure buruari galdegiten diot sarritan.

Hilerria

Atalburua

Azken sarrera
ala
lehen irteera?

Soldadu ezezagunaren hilarria

Gure heroen izenak
izarretan dira idatzirik.
Noiz behinka desagertu egiten dira
oroimeneko zeruan
distiratsuago berragertzeko
amets zeruan.

Anonimoa

Aliferrik nire izena jakitea
neu barik
ez bait da
ezer

be

ez

Alboko hilarria

Izenen izenak
ispiluen ispilu!!
basamortu hutsalak
ezereza inguratzen.

Gerran erori zinetenoi
ez gaituzue
paketan utzi.

Lurperatzailearen gogoetak

Destinoak goldaturiko ildoetan
aitzurretan nabil
tarteka;
berak guren dituenetan
gorpu hilotzez ereiteko
inora be ez doazen bide hilok.

Soldata miserable baten truke
behin betirako trukutzen
zaituztet, lekuz
gerra absurdo batetan
mizkeriaren ezpata kolpez
eternitate zuloan eroritako soidaduok.

Gogoeta laburrak

Ezerezaren itzala,
txori imaginarioa.

Denbora ez doa.
Geu goaz denboran.

Baso hura ederra zen.
Halaxe diost
ustelbako azken enborrak.

Gaua diozu?
Ez iezaiozu itsuari
halakorik aipa!

Nori mintza hatzaio,
ixiltasun hori!

Bizitza,
heriotzarik luzeena.

Izuaren izu naiz;
hator izu hori!

Ez niri aterik jo, Herio,
neu bait naiz
atea bera.

Ixilik aurkitzen banauk
eroan nazak ixilago.

Gorrok aditzen ditugun kantuak
entzunezinak zuentzat,
entzumendunok!

Etorkizun argitsua dakust
itzalaren adarretan zintzilik.

Lehertu egin da nire bihotza;
taupada barik
bare doa orain odola.

Zerk elikatzen ote gosea?
Zeren gose ote naiz?

Egarri sikua naiz.
Ur sikuren batek
asetuko ote nau.

Begiak zabaük
ametsak ditut gogoan.

Ezerezera noa bakarrik;
ezereza, bakardadera.

Azaroak hogei

Airea zulatzen bozina adarrak;
Han hemenka zenbait barrikada sutan
arratseko zeruarekin larrutan
teilatuetan gora igoten kedarrak;
hartuak gaitu gaur mendeku sukarrak.
Lehertzear garunak hainbat burutan,
negarrez gara gasoil anpulutuan
jaurtiz koktelak; hain arma kaxkarrak
guk eta hain hornitua, aldiz, etsaia!
Bide berrietan herkideok saia
berreskura arte askatasuna;
jainkoak menperatu, hautsi harkaitza,
libra dezagun Prometeo; betor garaitza
eta beronekin etorkizuna.

Abendua
gabon suak piztea
herri honen ekandua
herri honen ekandua
gabon suak piztea
Abendua

Zeharkatu nahi
zure kaleak,
askatasuna.

Ikusi egin
kaioletan perrexila hazita,
txoriak leihoetan,
kanpoan umeak,
hamaika eguzki apur
irrifarre distiretan
jostaka.

Jezarri egingo nintzateke
zeure itzalpetako
aulki landaretsuetan
eta —zertan ez?—
lainoarekin mintzatuko
gure begietako zorion lausoaren
jatorriaz jakitearren,
Askatasuna,
zure kaleak
neuk zeharkatu nahi.

Hilburukoa

biluzirik urgainduko naiz
gauaren erdian:
izarren negarra,
behelaino naiz bihurtuko
goizaldean,
itsasadarrean labanduz.
Meheki bustiko ditut
talaiako belarrak,
arrainuntzi goiztiarren
masta eta sareak
eta leihoetako kristalak.
Artizarrak
iragarriko du ekiaren sorrera
hosto infinitoetan lehertuko naiz
haranean zehar sakahanatuz,
oihal orlegiz janzteko
mendiak zuhaitzak landareak oro.
Argiaren baitan murgilduko
naiz biluzirik
izpi infinitoetako zipriztintzeko
ume olgetien adatsak,

itsabeheretako haitz biluziak eta
kresal molekularak.

Hegal zuria izango naiz
eguerdiko perfekzio bertikala
labainak bezala
ebakitzen.

Itzalak mendian behera
jausiko dira;
odoletan abailduko naiz
sartaldean
dena azken besarkada gorriskaz inguratuz,
emeki hersten den betazalaren azpian
bilduta.